

## ORDENANTZA FISKALA, OKUPATU GABEKO ETXEBIZITZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

### 6. ordenantza

#### Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VIII. Kapituluko 184. artikulutik 191.era bitarte xedatutakoaren babesean ezarri da, bi artikuluko horiek barne hartuta.

#### Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea udalerrian kokatzen diren eta okupatu gabeko jotzen diren etxebizitzak edukitzea da.

3. artikulua.- Zergaren ondorioetarako, etxebizitzatza joko da baldintza arruntetan aldi baterako zein luzaroan pertsonen bizileku izan daitekeen eraikuntza oro.

4. artikulua.- Okupatu gabekotzat joko dira urte batean lau hilabete baino gehiago okupaturik egoten ez diren etxebizitzak –salbu halakoak bakarrik urtero aldi jakin batzuetan aisiarako edo olgetarako erabiltzen badira–, eta erabiltzaileek etxebizitza zein herritan dagoen eta herri horretan ez badute haien bizilekua.

Ondorio horretarako, kontratua duten etxebizitza alokatuak okupatutza joko dira.

5. artikulua.- Ez dira izango zerga honen mende etxegintzan edo etxe-salmentan diharduten merkataritza-entitateek eraikitako etxebizitzak, halakoak lehen aldiz eskualdatu arte.

#### Subjektu pasiboak

6. artikulua.- Zergaren subjektu pasiboak pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen banatu gabeak, ondasun-erkidegoak, eta gainerako entitateak dira, baldin eta nortasun juridikorik izan gabe batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen badute eta honako kasu hauetan badaude:

a) Etxebizitza hutsen gainerako jabetza-eskubidearen titular badira, etxebizitza horien gainean gozamen-eskubide errealik ez bada.

b) Etxebizitza hutsen gainerako gozamen-eskubide errealen baten titular baldin badira, eskubide hori jabeari ez badagokio.

#### Salbuespenak

7. artikulua.- Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsiak:

a) Titular gisa etxebizitzak zein herritan izan eta haien zereginak handik at bete behar dituzten funtzionario publikoak dituztenak, betiere ezar dakizkiekeen legeekin bat.

b) Titular gisa aldi baterako ohiko bizileku duten herritik kanpora joateko beharra duten langileak dituzten etxebizitzak, arrazoi teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak zein enpresaren jardunari dagozkien kontratuak direla medio edo mugikortasun geografikoaren menpe daudelako.

c) Titular gisara administrazio publikoak dituzten etxebizitzak.

Edonola ere, salbuespenak etxebizitza bakar bana baino ez du hartuko, salbu c) idatzi-zatian jasotako kasuan, non salbuespenak etxebizitza guztiak hartuko baititu.

#### Zerga-oinarria

8. artikulua.- Zerga-oinarria Hiri Lurren gainerako Kontribuzioaren ordainarazteko indarra duen bera izango da.

#### Kuota

9. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari karga-tasa aplikatetik sortuko da.

#### Karga-tasa:

10. artikulua.- Karga-tasa Ordenantza honen eranskinean ageri dena izanen da.

#### Zergaren sortzapena

11. artikulua.- 1) Zerga 16. artikuluan aipatzen den jakinarazpenetik urtebete igarota sortuko da lehen aldiz, betiere etxebizitzak okupatu gabe jarraitu badu 3. eta 4. artikuluetan haren gainean egiten den kalifikazioaren arabera.

2) Gerora, urte bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko da zerga.

Kuotak sei hilez behingoak izango dira, sei hileko naturalez kontatuta, eta sei hilekoen barnean zatietan eta ezin txikiagotu direnak.

12. artikulua.- Subjektu pasiboek, kasuan kasuko espedientea bideratuta, etxebizitza okupatzen den unetik aitzinako aldiari dagokion kuotaren heineko zatia itzultzea eskatu ahal izango dute.

Zergaren kudeaketa

13. artikulua.- Okupatu gabeko Etxebizitzen Erregistroa osatuko du Udalak, zergaren ordainarazte aldera

14. artikulua.- Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek aitortpena aurkeztu beharko dute, Udalak emandako ereduarekin bat eta 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, hutsik jo daitezkeen etxebizitzak berri emateko, zerga ezartzeko erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

15. artikulua.- Aitorpenik aurkeztu ezean, edo aitorpenak akastunak badira, Udalak, ofizioz edo salaketa baten ondorioz, erregistroan sartuko ditu aurreko leerroaldean aipatutako etxebizitzak, espedientea bideratu eta gero eta interesdunei entzunda

16. artikulua.- Behin alta bat eginda Erregistroan, Alkateak titularrari jakinaraziko dio hori Zerga sortzeko urtebeteko epea has dadin, 11. artikulua xedatutakoarekin bat.

Alta eta bajen sistema

17. artikulua.- Behin Erregistroa eraturik, eta aurreko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, subjektu pasiboek edo haien administratzaile edo legezko ordezkariak gertatu diren aldakuntzak deklaratu behar dizkiote Udalari, eta horretarako alta-, baja- eta jabari- edo titulartasun-aitorpenak aurkeztu behar dituzte, halako gertaerak jazo eta hurrengo hogeita hamar egun balioduneko epean.

18. artikulua.- Subjektu pasiboek behar diren alta-, baja- eta aldaketa-aitorpenak aurkeztuko dituzte dokumentu fede-emaileekin batera, zeinetan gertatutako aldaketa egiaztatuko baita, eta aldaketak zer seihilekotan gertatu eta hurrengo seihileko naturaletik aitzina izanen dira eraginkorrak, seihileko horri dagokion kuotan eraginaren dutelarik.

Arau-haustea eta zehapenak

19. artikulua.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari eginen zaio men.

Xedapen Gehigarria

Okupatu Gabeko Etxebizitzak Udala Erregistroa edo horren ordezkari errola fiskala eratuko da behin Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluaren VIII. Kapituluaren aldaketa –zeina egun Nafarroako Parlamentua bideratzen ari baita– onetsi, eta Nafarroan Etxebizitzarako Eskubidea Ziurtatzeko Neurri Urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen bidez sortutako Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Hutsen Erregistroa abiarazi eta gero.

**TARIFA-ERANSKINA**

Karga-tasa

Tributu-kuota erdieste aldera zerga-oinarriari aplikagarri zaion karga-tasa indarrean dagoen Hiri-lurren gaineko Kontribuzioaren tasaren % 40 da.